

1956

HERMANO VALENTIN BERRIOCOA F. S. C. *k.*

*dita Pit.*

vive Laffite "Hernia"-ren artekariari:


agur eta 1957'gko. urte Berai On.

*Basurko ollkaria*

il eanjo eta "Herrin"-en eusatiko  
berri labur-labor bialteen di-  
zut. Milla erker.

Mendee "Herrin"-ren  
zenbake batz b'aldia ..

F. Remíndua.  
Colegio San Marcial  
IRUNA



HVB.

+ Felices Pascuas de Resurrección,  
de su afmo. y humilde servidor en  
Xto. Rey,

*Hernando Salantij Burriachwa*

*F.S.C.*  
Irún, Abril, 1.958.

P.D.- Guillaume Epperre lagunak esan  
zidan bialduko zidala "Herria", eta  
adizkide oni eskerrak astero-astro  
artzen dut. Nik ere bialtzen ditut  
berri laburto batzuk, eta argitatzent  
dira. Eskerrik asko orregatik.+ "Gyre  
-Herria" aldizkarian ikusi dut (3.<sup>er</sup>  
trim. 1956) zuk Sorbona'n eman zendun  
itzaldia. Oso ederki dago; tamalez ez  
nun esagutzen, ez baidut irakurtzen  
aldizkari ori. Pozik ikusiko genduke  
urtero-urtero orrelako "kronika" bat,  
euskal-kulturari buruz, zer egiten der  
elgar jakiteko. Jarraituko al duzu zuk  
lan eder ori egiten?.+ Euskal-Biblio  
grafia 1955' garren urtetik asi eta au  
rrerantz egiten asi naiz. Bialduko di  
zudaz "Euskeria"-n agertzen diraneoen  
aparteko edo separatak, gero liburu  
batean enkuadernatzeko.+ Bidaso-aldeko  
ipuin eta elezarrok biltzen asi naiz,  
eta "Gyre Herria"-an edo emango ditu  
daz, Jaungoikuak lagun. Agur.

HH. DE LAS ESCUELAS CRISTIANAS

Colegio San Marcial

IRUN (Guipúzcoa)

Teléf. 61026

+

Irún, 4 de Noviembre de 1.961.

Administración del Semanario HERRIA  
8, rue Jacques-Laffitte.  
Bayonne (B.-P.)

Tengo el gusto de acusarles recibo de la atta. nota del día 27 p.pdo., presentándome la cuenta de HERRIA, correspondiente a los años 1959-60-61 y 62.

Fue debido a la generosa y desinteresada atención del canónigo Sr. Epèrre, que se adelantó a enviarme gratuitamente dicho Semanario, haciéndome constar que me enviarían en concepto de gratuito, pues no dispongo de dinero para suscripciones de revistas en euskera. Yo he agradecido siempre esta atención, y procuro corresponder con numerosas colaboraciones

en el muy apreciado Semanario. Además, procura hacer  
cuanta propaganda me es posible entre los vascófilos  
de aquende la frontera.

Por todo lo expuesto, supongo que se tratará  
de una involuntaria distracción.

Quedo de Vds., con el sincero aprecio de siem-  
pre, affmo.s.s.

*Anai Berriochoa FSC.*

Frère Berriochoa, FSC.

*Alfilde*

HH. DE LAS ESCUELAS CRISTIANAS (*LOS SALLE TARRAÑO*)

Colegio San Marcial

IRUN (Guipúzcoa)

Teléf. 61026

+

Irún, 12 de Mayo de 1.964

Rdo. Sr. Dn. Pierre Lafitte  
Bayona.

Mi venerado y muy estimado amigo en el Señor: Le escribo esta carta con motivo del fallecimiento de mi querido padre Q.E.G.E., don Saturnino de Alzola y Lizundia, "Etxejaun" de la casa "Tontorra" de la anteiglesia vizcaína de Izurza (Duranguesado). Falleció el día 29 de Abril pasado, a los 67 años de edad.

Ha sido buen cristiano y amante de su familia, que ha trabajado con ilusión por su familia; ha sido querido por todos, porque no hizo más que el bien que pudo según sus posibilidades. Amante de la paz, esperamos que la Divina Misericordia le habrá concedido la Paz Eterna.

Nuestra familia cuenta con muchas vocaciones religiosas: 9 entre los parientes próximos (1 dominico, 1 lasaliano, 1 marista; 1 adoratriz, 1 agustina, 4 franciscanas,... entre ellos ha tenido 5 hermanos religiosos)

Escríbía con soltura y naturalidad en euskera las cartas familiares. Su última carta venía juntamente con la de la niete ~~la~~ primera de su nietecita de 9 años, las dos en euskera.

Deja 2 hijos. Mi hermano le sucede en el mayorazgo "etxejauntzan". Yo he salido vascófilo. También una hermana del difunto, Sor Eustakia Alzola, ha escrito cuentos y leyendas en euskera, para los repertorios folklóricos vascos, y que esperamos publicar un día.

Sería mucho pedirle, Sr. Lafitte, que le dedique unas breves líneas en su Semanario HERRIA? a base de estos datos que le envío? Yo se lo agradecería mucho, y que vayan suscritas por su firma de Vd. Ha sido tan grande el amor que nos ha tenido a sus hijos, y yo particularmente he sido favorecido con tal comprensión y ayuda en mis estudios sin mirar en sacrificios, que mi agradecimiento quisiera que fuese también muy grande en esta ocasión, honrándole lo más posible como modelo de padres vascos.

Mil gracias de antemano, y quedo con la consideración y afecto de siempre, suyo affmo. y humilde servido y amigo en Xto.

Hno. Valentín Berriochoa F.S.C.

Hno. Valentín Berriochoa, FSC.

HH. DE LAS ESCUELAS CRISTIANAS

Colegio San Marcial

IRUN (Guipúzcoa)

Teléf. 61026

Alzola

†

Irun'dik, 1966.V.16'n.

Piarres Lafitte Ithurralde  
"Herria"-ren zuzendaria  
Baiona'n.

Agur adiskide agurgarria: "Herria" astekari maitea artu dut gaur. Milaesker. Baiña nik ez dut dirurik ordaintzeko! Noiz beinka, idatziko nuke lantxoan bat, lenago bezela, arpide-ordezko, baiña ez dut dirurik.

Biali ditut "Herria"-ra bi euskal-lan, bi eskutitz, Ez dira argitaratu.<sup>x</sup> Eskutitz bidez nai nuke ematea euskal bizitzaren berri, ensaio antzera, ensaio-filosofiko antzeera. Gai denak erabilteko asmoa artu det. Gezurrik bein ere ez. Beti egia. Eskutitz laburrek izango dira beti. Batez ere emengo euskal-kultura emango det.

Ongi ezpaderitzaitzu asmo berriari, mesedez eskatzen di-zut erantzun baten bidez erraiteko zure iritzia. Beingoan bein, idatzi egidazu, mezendez. Millaesker, aurretik.

Berriro emen naiz Euskalerrian. Irun'en orain. Gero, ez dakit nun. Euskalerrian nai nuke beti.

"Zeruko Argia"-n ematen ditut berri labur batzuk: "Eusko-Jakintza" gaia arturik. Ezagutzen duzu?

Zure berri onen zai gelditzen naiz gaurkoan.

Agur, eta eskerrrik asko.

Zure menpeko eta lankide beti,

Mario Borriozola H.C.

(x) 3 rue Jaques-Buffet va biadu ditut, eta balioteko eure almentara or direnca!!

**Colegio San Marcial**

IRUN (Guipúzcoa)

Teléf. 61 10 26

+

1969.II.27' garrenean. Irundik.

Piarres Lafitte Ithurralde jaun agurgarri adiskide onari. Ustaritzen.

Artu dut "Les courants de pensée dans la littérature basque contemporaine". Milla esker, biotzez. Neretzako gai egokia da, deki-zunez, eta bi-iru aldiz irakurri dut. Okerrik ezpada, askoz geiagotan ere irakurri eta konsultatuko dut. Liburu bat merezi du gai orrek, atal bakoitzak luzatuak.

Mainhariko semea dà Aita Bittoríño Kapanaga, Agustindarra, bere Ordinenako "Consultore Generala" izanikoa. Agustinolaririk onen a dala erraten dute gaur, mundu guztian ere. Zoritzarrez, (esan nion euskeraz idazteko), eta ezin du: aztu egin zaio euskeria.

Euskeraz idatzi ditu eskutitz asko nere izeba Sor Eus. Alzola, Frantziskotarrak (O.S.C.: Ord. Sanct. Clara). Durañgoko Monasterio de San Francisco-n bizi da oraindik, zarra. Eta jarraitzen du euskeraz idazten. Eztakit pentsanentu bereziren bat duen ala ez. Uste dut Frantzisko Deunaren eskolako aszetikakin ibiliko da, eta ortik kanpora esateko aundirik ez. Ipuia-eta ere egin ditu, eta gure gerratekoak idazten dabil orain. Don Manuel Lekuona Euskaltzaindiko lendakari jaunak ditu ~~una~~ eskutitzok orain, azterkatu eta bere iritzia emateko. Aita Villasantek ere ikusiko ditu gero. Dana dela, euskerazko textuak dira, moja batek eginak, eta euskal kulturari emairi bat. Errestasun sundia du gauzak esateko, eta buru ar-

gia. Ortographi-akademiaren<sup>ezin</sup>ezin izm<sup>du</sup> artu, lege zarreko ikasiduna dalako.

Erti gaietan Ayalde-k egin ditu saio batzuk, euskeraz. Azkenengoz, euskal ertiaren ganean itzaldi bat eman du Donostian, euskeraz, eta lais-ter argitaratuko du. Erti-Kritika ere egin du "Egan"-en. Nik ere saiatu dut arlo au, euskeraz. Bai Egan-en, eta beste. Lan laburrak. Liburu bat egiteko asmoa ere badut euskal ertiaren ganean. Montes Iturrioz pinto-rearen ganean ere egiña dut, eta ~~xxix~~ laburki argitaratu Egan-en.

Oartxo bat egingo diot zure lan oneri, "Zeruko Argia"-n ematen deten Oar-Sorta atalean. Glosaria Cultural Vasca, edo orrelako lan bat egi-teko oarrak dira "Oar-Sorta" orretakoak.

Euskal-Bibliographiaz jarraituko dut, beti bezela. Iritzzi-emate lanetan ere bai, euskera saiatzearen gai orren arloan. Baiñan kritikoa ez naiz.

Jarraitu zuk onelako lanak argitaratzen. ¿Zergaitik ez zenuen eman Gaurko Euskal Literaturaren Berriak, Baionako Museuan eman zendugen itzal-dia? !Lastima!

Beste egun baterarte. Eta noiz jakingo dugu zure Euskal Literaturaren Atze edo Kontairaren berri?. Aurrera!!

Agur, biotsez

Anai berrioxoa fte.

anai berrioxoa, FSC.

P.S. — Nore Bibliographi-  
-txaertelak esiten ari neiz. Emen  
ear bat. non zeinbat idarlan aurra situdau: 600 eta gerago. Gorretari-  
ko batzuk 200 eta gerago emaitekuak dira (Conf. "Liter. Ora Euskarika Bidautarra")

*Aitzaile*

**Colegio San Marcial**

IRUN (Guipúzcoa)

Teléf. 61 10 26

+

Irundik, 1969.III.11' garrenean.

Piarres Lafitte Ithurralde Jaunari  
Ustaritzen.

Adiskidea:

Karta onegandik aparte bialtzen dizudaz EGAN-en argitarra eman ditudan bi lantxoen aparteko edo separatak. Bainan orrekandik gainera ere ematen ditut EGAN ortan beste lantxo batzuk, seudonimu edo izengoiti-peetan. Orregaitik bialtzen dizut emen Bibliographi-lerro bat. Jakingo dezu, ogei eta geiago seudonimo erabilten ditudala, nere burua gordetearren jendeen aurrean.

"Oar-Sorta" izenagaz ematen dot atal bat "Zeruko Argia"-n; Arriundin seudonimoagaz siletzen dot.

Urrengo baterarte, Jaungoikoak gure badau-gure.

Zure adiskide,

*D. Mai Berriatzaia* →  
P.S.- Nola dijoa Euskal-Literaturaren Atze edo Kontraria?

COLEGIO SAN MARCIAL

TEL. 6110 26

IRUN

<sup>4</sup>  
Irundik, 1969.VIII.8<sup>o</sup> garrenean

Piarres Lafitte Ithurralde Jaun adiskide onari.  
Ustaritzen.

Aspaldiko adizkidea:

Gazte eta langille ikusten zaitut "Herria" astekarian, eta biotzez poztutzen nauzu berri onakin. Zorionak! Eta urte askotan, Jaungoikoak nai dun arte!

Iralurri det "Aufiamendi"-ren Enziklopediari buruz egin dezun iritzi-ematea "Herria"-n. Ni ere benetan nago pozik argitaratzeko audi oinekin. Benetan da, Euskal Kulturan, maila sundiko obra bat. Zoritzarrez, arifieketa batean egin dute (urte betean uste det) "Renazimendu aurrea". Utsuna batzuk beteko nituan, edo oiker batzuk zuzendu, baiña iratua eta gero erakutzi zidan Estornes Jaunak. Tamala!

Eta zure lana nola dijua (Euskal Literaturaren Kondaира)? . Oar batzuk bidaltzen dizudaz, Oar auek Estornes Beñardori ere bialtzen deutscher, azkenean geitzeko:

1.- Motrikuko Txurrukatarren artxibuen surkitu ziran eskutiz

tzak. — Aita Arana jeusutiak aipatu ~~uzikoak~~ dira. Jon Bilbaok ikusi ditu bi tolcitán. Gutxik irakurri du, ikusten danez, Aita Aranaren lana: ez Mitxelenak, ez Garatek, eztakit ba Villasantek; Estornesek ere ez, nik esan artiño... Jon Bilbaok ez ditu ikusi eskutitzat, baina bai argitaratuta orri batzutan. Ikusi bibliografía: "Las cartas de María Manuela de Ecenarro" Bol. Amigos País, XXII (1966) 267-s orrialdeetan; eta "Textos arcaicos Las cartas del archivo familiar de Churrería" Bol. Amigos País XXI (1965) 252<sup>gn.</sup> orrialdian. Merezi, aipamen <sup>bis</sup> gitea, nai ta gaurko kritikaren menpean jarritako textuak ezpadira ere.

2.- Nicolás de Zubia. Lezamis-en bidez bakanrik badakigu ere Zubia-ren euskal textuen barri, merezi du aipatzea, batez ere "Coplas a la Encarnación o Nacimiento de Nuestro Señor Jesucristo" textuegaitik (Conf. I. Mitxelena: Textos Arcaicos Vascos, pag. 138). Nik uste det, Gandara eta Barrutia-ren lanak estudiatzeko-orduan, kontuan artu bear dala Zubia-ren textu au; euskal teatrua edo teatru antzeko gabon-kantu-koplaak badauke ~~el~~ zer-ikusi antz bat. Zubia-ren textuan ere ikusten da "Coloquio entre los pastores (Machinquito eta Chelu)". Geiago idatzi bazuen Zubia ~~ez~~ Durangokoak, eztakigu, orain beintzat. Agertzen bada egunen batean! Aipatzea beintzat merezi du.

2.- Mikelestarena. — Ainbat eta ainbat lantxo argitaratu ditut aldizkarietan: "El Bidasoa", "Vida Vasca", "Bol. Amigos del País",... Ez da kontzrotu napar idazle onegaz Estornes nappa! Vinson-ek ere aipatzen <sup>bis</sup>. Nai bazenduke, pozik bialduko ~~nigune~~

txartel osotu bat Mikelestorenaren ganean, bai ainbat argi-raldiren berri *la* jakin det, eta berdin bere bizitzakoak ere bai.

4.- Baratciart.- "Basco alabés" dala, esaten du Aita Aranak. Araban jaioa izango zan, orduan?

5.- Textu zarrak atalerako: Alfonso Irigoyen: "Carta en lengua vasca dirigida en 1.683 desde Bilbao por Fermín de Basavilbaso a Joanes de Callo, a San Juan de Luz". Euskera, VII (1962), 259-s.

Diego Lorenzo de Urquiza

6.- Nicolás Ma de Gamboa. Neretzako, au da "El Devoto Durangués". Amazortzigarren gizaldikoa. Bi liburuen egillea: euskerazko bata, Virgina (Iruñian, 1737) eta español bestea, baixa euskerazko kanta batzukin. Durangoko alkatea eta artxibairen adurea euki zuena. Bidaliko dizut fitxa osotu bat. "Virgina" liburuaren ale bakarra Bonaparteren liburutegian gordetzen da, Chicago-n, eta orain aste batzuk dirala artu det kopia bat.

7.- Nicolás Ma de Gamboa.- Aipagarria da Gamboa, XIX-gizaldikoa. Naparra?. Euskaldun oroipenac liburutxoaren egillea,

zortzi atal laburretan, eta gaifiera bi eskutitz printze Bonaparteri. "Euscaldun croiponac" ere Bonaparteri bialdurikoak, Ameriketatik, ~~XXXX~~ 18 urteko mutil gaztea zala, 1859<sup>garren</sup> urtean. Bidali nizun separata bat? Bol. Amigos País aldizkarian argitaratu nuen lan politi ori XXIII (1967) 405-414<sup>gn.</sup> orr. Ez det oraindik inbestigatzerik egin Cuba-n (Cardenas errian).

8.- Gaztañazatorre. Durangoko apaiza izan zan, joan dan gizaldikoa. Pedro Martin de Gaztañazatorre. ~~1878-1900~~  
De la segunda mitad del XIX. Temas religiosos. Eleiz-gaiak idatzi zituan. 1880<sup>garren</sup> urtekoa da Gaztañazatorrearen liburua.

#### /y Jauregui.-

9.- Carlos de Orúe. Carlos María ~~Orúe~~ bere izena, karlisten erregea bezela. Irrege au Durango**bizi** izan zan gerratean, ~~Re~~ (Oruetarren jauregian). Carlos jaio zanean ere ~~g~~tuwegi aretan zegoen erregea, eta bere besuetan artu zuan bataiatzeko. Aundikio famelikoak ziran Oryetarrak, Egia jeneralaren etxeartekoak. Apaiz egin zan Carlos María ~~Orúe~~, eta liburu au idatzi: Iracatzi ~~larr~~ labur batzuc (Barcelona, 1879). Buskera egokia eta errexa daramil Cruck, oso egokia.

10.- José Batista Gamiz. Badakizu agertu dirala Gamiz-en euskal bertso-Koplaek, Loiolan. Ikusi "Egan", 1968, 3-s. orrialdietan. Merezi du kontuan artztea.

- 11.- Domingo de Canala-Echevarría. Ixillean egon da Canala-Echevarria-k idatzi (eta argitaratu) zuen liburua euskeraz, Berriotxoa dominikuren bizitza labur bat. Gernika-n, 1890' garren urtean. Beste liburu bat ere argitaratu zuen, Gernika inguruko euska usainekoa au ere. Ez du asko balio Canala-ren obrak, baina gaiak merezi du aipamen bat. Eztakigu bere bizitzako gora-berarik.
- 12.- Hermanos Platero.- (713' garren orrialdea EGIPV). Idazlearen izena Juan Cruz de la Fuente. Ez nuke jarriko nik "Hermanos La Fuente", Juan de La Fuente baizik. Beste anaia ez zan koplaegillea, soiñularia eta dantzaria baizik. Gaifiera, ez dira XIX-gizaldiazen azkenaldikoak, Napoleonen gerratekoak baizik, Gizaldiazen asierakoak. XVIII-ko azken urteetakoak ere bai. Olazaran abadeak inbestigatu zuen Durengo zidargin auen ganean, baina il egin zan, eta argitaratu gabe gelditu dira aurkitu zituen barri jakingarriak.
- 13.- Detche pare Bernat.- "Bol. Amigos País" aldizkarian eman nuen lantxoak kopiatu aute, neri esan gabe. Jakin banu, ilutuko nuen pixka bat, eta kontuz zuzendu "Bibliographia" atala. Esaterako, ez dira Vinson-enak \*-ekin dijuazten aipamen denak. Larousse Enziklopediakoa bera ere ziurtasunez ez dakit nik Vinson-ena danik ala ez. Nere baimenik gabe dijoa ikututze ori, tamalez! Sekretariak kopiatzean egindiko utsa izan bear du, esan didatenez.

14.- Otaño bertsolaria.- Ez det aurkitzen liburu onetan. Oker nabil?

15.- Guerrico. Badago beste idazle bat XIX-gizaldikoa, Gerriko: Aita Gerriko jesuita bat. Aita Aranak ere sipatzen du, eta bere bizitzari buruz ainbat oar eta len idatzi ditut. Aipatu bear litzake.

16.- Franciscò Ignacio de Jauregui. (689'gn. orr.): Lan sakon bat egin da idazle ~~muñoz~~ onen ganean. Txartel bat bialiko dizut, berri barriakin. Argitaraldi barri bat ere egin dute.

17.- Balbino de Garitonaindia.- Ez da aipatzten, eta merezi du, batez ere "Mesiás" kantuaren itzak egin zitualako, beste euskal lanak beste.

18.- Aldazaval.- Liburu polit bat argitaratu zuen Aldazaval, bederatz urren bat, Iziarreko Andra Mariari. Merezi ote du aipatzea? Ez du ifork aipatzten, eta ~~zut~~ ez da estudiatu bere euskerea, dalkidanez. Uste det aipatzea merezi ~~d~~uela. Bi argitara-aldi izan zituen (gutxienez) Aldazavalen liburuak.

Aipatzen dituzu zure Euskal Literaturan idazle txikiak? Edo ta izen aundikoak bakarrik? Aundiak bakarrik aipatu ezkerro, zeinbat dira? Eun?.

Izen aundia dutenak ongi estudiatu, bai, bainia bigarren mailakoak eta besteak ere aipatu bear litzakez, nere ustez, batez ere XVI, XVII eta XVIII gizaldikoak. Eta XIX-koak ere berdin, batez ere gizaldiaren erdiraifokoak, eta Bonaparten denborekoak. Ugariago dira gerokoak, eta asko ta asko gizaldiaren azkenengo amar-amabost urteetan.

Bildirrik gabe eskatu egidazuz nai dezuzan argitasunak. Nere eskuetan badeude, berealaxe erantzun ditzuk. Tamalez, Jon Bilbao-ren Bibliografia asti ~~iro~~ dijua argitaratzen. Enziklopediarenkin patera joango da. Inprimatua dago geiena, Bilbon. Pare bat urtean zabalduko dala, uste dute, eta an daude ~~an~~ bat eta asko argitasun, euskal idazleai buruz. Ainbatik arrñez ikusiko al degu argitaratuta!

Biotzez agur, eta urrengorarte. Zure ikasle apala naiz beti.

aurai berriotsoen Alzola  
FSC.

1.- Izena eta bi abizenak.  
Nun jaio?  
Noiz? (Urtea-Illa-eguna)

Famili eskualduna? Euskaltzalerik filian?  
Gaztearoa nun?  
Ikasteak nun?  
Noiz ari ziñan eskualtzale? Nun?

2.- Egin dituzun lanak euskaltzale bezela:  
a) Idatziz:

Liburuak  
Kazetaetan, etabar.

b) Irakasten eskuaraz?

c) Bertze egiñak eskuararen alde.

Erderaz lanak idatzi: Liburuak  
Kazetaetan eta abar.

Erabiltzen dituzun izengoitiak (seudonimoak): ("So-Egillea",..

3.- Ezagutzen duzu euskal-literatura?

a) Lenagoko zarrak?  
b) Oraingoak?

Zure iritzia gaurko eskual-literaturari buruz?

Eskual-idazle asko ezagutzen dituzu? (izen batzuk

4.- Nundik eta nora ibili zera bizitzan? Euskal-erritik kanpora

5.- Sariak eta izan dituzu?

6.- Bertze zer nai, zure bizitzari buruz, edo euskerari buruz,  
zük nai duzune.

"Frankazu" dedikariay nai dat iñaki  
artikulu bat, eta zuie erretratu bat (portretu bat)  
braldu, mesedez. (aita nabier gitarretxe "Fra-  
Freddo"-en eta Gartzabal apaizjari ere an  
egun leentzearaz, Biskaiako euskeran).

Mihalker.

Oñai Berriodioa

P.S. Ba-Duru jaiotzeeko  
portreta bat, edo jaiotterriarena?